Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko uztailaren 26a, osteguna — 144 — Jueves, a 26 de julio de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ERRENTERIAKO UDALA

### HIrigintza

*Iragarkia*

Alkateak 2018ko maiatzaren 31ean emandako ebazpenaren bidez behin betiko onartutzat hartzea onartu zen Errenteriako txakurrak eduki eta zaintzeko udal ordenantza arautzailearen lehen aldaketa-ri, hasierako onespena egin zen baldintza berdinetan.

Aipatutako erabakiari jarraiki, eta Toki Araubide Oinarri Lege Arautzailearen 65.2 artikuluan aurrikusitako epea igaro ondoren, erabaki horren testu osoa eta ordenantzaren testu osoa argitaratuko da jendeak jakin dezan eta bere ondorioak izan ditzan.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtso jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtso.

*Non:* Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia.

*Epea:* Bi hilabetekoa, argitaratu eta biharamunetik hasita.

ORDENANTZA ALDAKETAREN TESTU OSOA

*Errenteriako txakurrak eduki eta zaintzeko udal ordenantza arautzailearen lehen aldaketa.*

*27 bis. artikulua. Txakur eremuen kudeaketa.*

1. Helburua eta definizioa. Artikulu honek xede du bereziki txakur-eremuen erabilerarako baldintzak arautzea, hurrengo izaera izanik:

Txakur-eremuak edo txakurrentzako parkeak: txakur-aisialdirako zuzendutako gunea, non bertan jabeek eta laguntzaileek gainbegiratuta eta kontrolatuta, txakurrak lotu gabe gozatu, korrika egin eta jolastu ahalko diren arriskurik gabe. Horrez gain, leku bat da herritarren bizikidetza maskotekin eta etxe-animaliak arduraz izatea sustatzeko.

Txakur-eremuak bi mota desberdinetan banatuko dira: itxiak eta irekiak. Lehenengoek itxitura perimetral hesituak edukiko dituzte, bigarrenak eremu irekietan antolatu eta ezarriko diren bitartean, kohexistentziarako eremuak izanik.

Udalerriko txakur-aisiako guneen titularitatea Errenteriako Udalarena da, hala nola horiek kudeatzea, eta alor honetan dauden xedapen orokorren eta arautegien arabera arautuko da.

2. Txakurrak jolasteko guneen egutegia eta ordutegia. Txakur-eremuak herritar eta txakurrentzat etengabe zabalik egongo dira, hogeita lau orduko ordutegian zehar asteko egun guztietan, baina erabaki hau aldatuko ahalko da egoerak hala gomendatuko balu.

Noizean behin txakur-eremu itxietan txakurrak eta beren laguntzaileen sarrera ekidin egingo da, dagozkien beharrezko hobekuntza, mantenimendu, osasun-lanak edo bestelakorik gauzatu daitezen egokia bilakatzen direnean.

## AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

### Urbanismo

*Anuncio*

Mediante Resolución de Alcaldía de fecha 31 de mayo de 2018, se acordó entender por aprobada definitivamente la Primera modificación de la ordenanza municipal reguladora de la posesión y cuidado de perros, en los mismos términos de la aprobación inicial.

En virtud de dicho acuerdo, y habiendo transcurrido el plazo establecido en el artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el referido acuerdo junto con el el texto íntegro de la referida Ordenanza para su conocimiento y efectos consiguientes.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo y pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso contencioso administrativo o cualquier otro recurso que estime procedente.

*Lugar:* ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

*Plazo:* dos meses a contar desde el día siguiente de su publicación.

TEXTO ÍNTEGRO DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA

*Primera modificación de la ordenanza municipal reguladora de la posesión y cuidado de los perros de Errenteria.*

*Artículo 27 bis. Gestión de las áreas caninas.*

1. Objeto y definición. El presente artículo tiene por objeto regular las condiciones de uso de las áreas caninas, definidas como:

Área canina o parque canino: espacio reservado para el esparcimiento canino donde, bajo la supervisión y control de las personas propietarias o acompañantes, los perros puedan disfrutar, correr y jugar sueltos sin riesgos. Es, además, un lugar para fomentar la convivencia ciudadana con las mascotas y la tenencia responsable de animales domésticos.

Las áreas caninas podrán ser de dos tipologías: cerradas y abiertas. Las primeras dispondrán de acotamientos perimetrales o vallados, mientras que las segundas se establecerán en ámbitos abiertos y siendo espacios de coexistencia.

La titularidad de las áreas caninas del municipio es del Ayuntamiento de Errenteria, así como su gestión, y estará regulada de acuerdo a las disposiciones generales y reglamentaciones que existan en la materia.

2. Calendario y horario de las áreas caninas. Las áreas caninas permanecerán constantemente accesibles y abiertas al público y mascotas, en horario de veinticuatro horas durante todos los días de la semana, pudiéndose modificar estas condiciones de acuerdo a las circunstancias que así lo aconsejen.

Eventualmente en las áreas caninas cerradas se podrá impedir el acceso al público y mascotas, con el fin de proceder a ejecutar las labores de mejora, mantenimiento, sanitarias, u otras pertinentes que se estimen oportunas.

EK\CV GAO-I-2018-05324

3. Txakurrak jolasteko guneen derrigorrezko erabilera arauak. Derrigorrez bete beharreko honako arauak ezartzen dira:

a) Txakur-eremu itxiak txakur maskotek eta beren laguntzaileek soilik erabiltzeko barrutia dira.

b) Lepokoetan arantzak edo hortzak dituzten animaliak ezingo dira sartu, ez eta lepoko elektrikoekin edo bestelako arriskutsuekin. Arreske dauden zakur emeak txakur-parkeetan ez sartzea gomendatzen da, eta beti ere maskoten titularren ardurapean.

c) Animaliak uneoro jabeak edota laguntzaileak lagunduta egongo dira, eta hauek izango dira beren zaintzaren eta ekimenen arduradunak. Txakurra uneoro zainduta egongo da, eta zeharo debekaturik egongo da txakurrak jolasteko eremuan bakarrik uztea.

d) Derrigorrezkoa da maskoten gorozkiak biltzea eta instalatutako zakarrontzietan uztea. Hortaz, txakurren jabeek beharrezko bitartekoak (poltsak,...) edukiko dituzte uneoro.

e) Txakur-eremu itxien ateak uneoro itxita egongo dira.

f) Animaliak gune horietara sartu eta horietatik loturik irtengo dira eta ez dira askatuko atea itxi arte. Txakur-eremu itxien kasuan txakurrak uhalarekin lotuko dira irteera atea ireki aurretik.

g) Animaliak uneoro lepokoa dutela egongo dira, txakur borrokaren bat izanez gero, banantzea errazteko. Prebentzioz, jarrera ez zuzenak edo bortitzak (erasoak, zaunkaka iraunkorki,...) izan ditzaketen txakurrak parkeetara eramatea ekidin egingo da. Horrela gertatuko balitz, eta jarrera horretan jarraituko balu txakurrak, pertsona arduradunak lasaitu egingo du txakurra, edo txakur-parketik kanpo aterako du.

h) Arriskutsuak izan daitezkeen katalogatutako maskotak. Txakur-eremu itxietan muturrekoa jarrita dutela sartuko eta mantenduko dira, eta eremu irekietan lotuta egongo dira gainera. Eremu irekietan sozializatze ziurtagiria aurkezten badute aske ibili daitezke. Animalia hauek txakur-eremuen barruan adin nagusien zaintzapean egongo dira.

i) Animaliaren bat oldarkor agertzen bada, pertsona arduradunak txakur-gunetik berehala atera beharko du.

j) Hamalau urtetik beherako adin txikikoek txakur-(eremu itxietan) sartu ahal izango dute, adin txikikoaz arduratuko den pertsonak lagunduta joaten badira parkearen itxituraren barnean.

k) Guztiz debekaturik geratzen da maskotak bainatzea eta apaintzea eremu itxietan.

l) Animalien jabeak legezko arduradunak dira eragin dezaketen edozein kalteren aurrean, Udalak ardura horretatik kanpo geratuz, kalte horiek (zuloak egitea,...) egitea uneoro prebenituko delarik, txakur-eremu itxietan kontu berezia izanik.

m) Maskoten pertsona arduradurek haiekin jolastu ahal izango dute, beraien edo besteen maskoten oldartzea edo asaldatzea ekartzen ez den bitartean. Horrela balitz, jarrera hori utziko da.

n) Oldarkortasun arrasto txikienaren aurrean, jabeak txakurra uhalaz lotuko du, eta zentzuzko denbora tarte batean txakur-gune itxia utzi egin beharko du animalia lasaitzen den arte.

3. Normas de uso obligatorias en las áreas caninas. Se establecen las siguientes normas obligatorias y de estricto cumplimiento:

a) Las áreas caninas cerradas constituyen recintos de uso exclusivo de mascotas caninas y acompañantes.

b) Prohibida la entrada a animales con collares de púas, dientes, eléctricos, u otros sistemas peligrosos. Se recomienda no acceder con hembras en celo salvo decisión, y en todo caso bajo la estricta responsabilidad, de las personas acompañantes.

c) Los animales deben estar en todo momento acompañados de la persona propietaria y/o acompañante, quien será responsable de su cuidado y de las actuaciones derivadas de la propia mascota. El perro debe estar vigilado constantemente, por lo que está absolutamente prohibido dejarlos solos en el área canina.

d) Es obligatorio recoger los excrementos que generen las mascotas y depositarlos en las papeleras instaladas a tal efecto. Para ello las personas propietarias dispondrán en todo momento de los medios necesarios (bolsas,...).

e) Las puertas de las áreas caninas cerradas permanecerán en todo momento cerradas.

f) Los animales deben entrar y salir del área canina sujetos con correa y, en el caso de las áreas caninas cerradas, no se soltarán hasta haber cerrado la puerta. En el caso de las áreas caninas cerradas se sujetarán con la correa antes de abrir la puerta para salir.

g) Los animales deben estar con collar en todo momento para facilitar su separación en caso de enfrentamiento. Preventivamente, se evitará llevar a los parques a los perros, cuando se prevea que van a interactuar de manera incorrecta o violenta (ataques, ladridos excesivos,...). En caso de que así fuera, y de persistir en esa actitud, deberán ser tranquilizados por su responsable, o retirados de esa zona o parque.

h) Mascotas que estén catalogadas como potencialmente peligrosas. En los parques caninos cerrados deben entrar y permanecer en el recinto con bozal así como en los parques caninos abiertos, y en este último caso deberán además ir atados con correa a menos que vayan provistos del correspondiente certificado de socialización, en cuyo caso podrán estar sueltos. Estos animales deberán estar dentro de las áreas bajo supervisión de personas mayores de edad.

i) Si un animal se muestra agresivo deberá ser retirado inmediatamente del área canina por la persona responsable.

j) Las personas menores de catorce años podrán entrar (en las áreas caninas cerradas) si van acompañados dentro del vallado del parque de una persona responsable de las mismas.

k) Queda totalmente prohibido bañar o acicalar a las mascotas en los parques caninos cerrados.

l) Las personas propietarias de los animales son las responsables legales ante cualquier tipo de daño que se pudiera ocasionar, quedando eximido el Ayuntamiento de la misma, y debiendo ser prevenidos los mismos (escarbar hoyos,...) en todo momento, teniendo especial cuidado en las zonas caninas cerradas.

m) Las personas responsables de las mascotas podrán interactuar con ellas sin que ello suponga una sobrexcitación o alteración de otras o de las propias. En ese caso, se desistirá de esa actitud.

n) Al menor indicio de agresividad, la persona propietaria lo sujetará con la correa y deberá abandonar el área canina cerrada por un tiempo prudencial hasta que el animal se haya tranquilizado.

EK\CV GAO-I-2018-05324

ñ) Animaliak barrutian nahi adina denbora egon ahalko dira, betiere mugatutako ordutegirik ez badago edo eta beste txakur edo pertsonekin gatazkarik ez bada sortzen.

o) Guztiz debekaturik geratzen da txakur-eremu itxietan jatea eta edariak kontsumitzea.

p) Guztiz debekaturik geratzen da txakur-eremu itxietan animaliak elikatzea.

q) Txakurra ez da askatuko txakur-parkera iritsi bezain azkar, eremuarekin ohituratu bitartean, hau da, askatu aurretik denbora tarte batean txakurrarekin paseatzeak taldean eta inguruan errazago integratzea ahalbideratuko du.

r) Txakur parke bakoitzerako gehineko maskota kopuru bat gomendatzen da, txakur-eremu itxi bakoitzeko ezaugarrien arabera.

4. Animalien jabeak edo laguntzaileak derrigortuta daude txakurrak jolasteko guneen erabilera arauak betetzera, eta gerta litekeen edozein kalteren legezko erantzuleak izango dira, eta, era berean, etxe-animaliak babesteko eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izateko alorrean indarrean dagoen araudia bete beharko dute.

5. Lehenik eta behin, Udalak ondoko zortzi txakur-eremuak sortuko ditu:

— Irekiak: Kaputxinoak (2), Agustinak (1), Alaberga (1), eta Arramendi (1).

— Itxiak: Lartzabal (1), Beraun (1), eta Erdialdea (1).

AZKEN XEDAPENA

Aldaketa hau indarrean sartuko da osorik Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko den egunaren biharamunean.

Errenteria, 2018ko uztailaren 19a.—Jaione Karrikiri Garaño, alkateordea. (5324)

ñ) Los perros pueden permanecer en el recinto el tiempo que se desee, excepto cuando exista un horario limitado o siempre que no se generen conflictos con otras mascotas o personas.

o) Queda totalmente prohibido comer y consumir bebidas en los parques caninos cerrados.

p) Queda totalmente prohibido alimentar a los animales en las áreas canina cerradas.

q) Hasta que el animal no se familiarice con el ámbito o en caso de ser preciso, no soltar al perro nada más llegar al área. Pasear con él un rato antes de soltarlo hará que se integre en el grupo y en el entorno más fácilmente.

r) Se recomienda un número máximo de mascotas por cada área, que se establecerá según las características del área cerrada y sus medidas.

4. Las personas propietarias o acompañantes de los animales estarán obligadas a respetar las normas de uso de las áreas de recreo canino, siendo responsables legales de cualquier tipo de daño que se pudiera ocasionar, así como de cumplir la normativa vigente en materia de protección de animales domésticos y de tenencia de animales potencialmente peligrosos.

5. En primera instancia, el Ayuntamiento creará las ocho áreas caninas siguientes:

— Abiertas: Capuchinos (2), Agustinas (1), Alaberga (1), y Arramendi (1).

— Cerradas: Lartzabal (1), Beraun (1), y Centro (1).

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Modificación entrará en vigor al día siguiente de su publicación íntegra en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Errenteria, a 19 de julio de 2018.—La teniente alcalde, Jaione Karrikiri Garaño. (5324)

EK\CV GAO-I-2018-05324